

3.a	3. JARDUERA FITXA	KOSTUARI DOAZKION BORTXAK	
------------	----------------------------------	--------------------------------------	--

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Kostuari doazkion bortxak	2 "badakit aipatzen"	- Kolegioan egindako fabrikazioan, aterabide tekniko baten eta objektu tekniko baten kostua ebaluatu.

- Objektu tekniko bat diseinatzean, baitezpadakoa izanen da objektu honen diseinuari doakion kostua ebaluatzea.
- Objektu tekniko baten diseinua bezeroari ordainarazten zaio objektu hori erosiko duelarik.
- Kostu hori, objektuak bete behar duen beharraren arabera, goregia baldin bada, haren salmentak murriztzak izan daitezke.
- Objektu tekniko bati doakion kostua fabrikaziorako beharko den osagai bakoitzaren erosketa prezioaren arabera ebaluatua izanen da.
- Objektu teknikoaren ekoizpenean pieza berezi batzuk fabrikatu behar baldin badira, orduan erabilitako materialen prezioa kontuan hartzekoa izanen da.
- Fabrikazioan erabilia izan den energiaren kostua gisa berean kontuan hartu beharko da.

Ebatzi behar den arazoa :

- Zenbat kostatzen du Eole X100 baten fabrikazioak ?
- Nola kalkulatzeko dira kostuak ?



<p>Eginbeharrak :</p> <p>mastaren prezio osoaren kalkulua</p>	<p>Baliabideak :</p> <p><i>DidactX-on-line</i> aplikazioa (interneten bidezkoa)</p> <p>ordenagailua + sarea + internet</p> <p>aerosorgailuaren piezak : masta + osagaiak</p>
--	---


SFKUFNTZIA	IZENBURUA	BALIATZFKO ATALAK
n° 3	Eole X100-en diseinua <i>(conception de l'Eole X100)</i>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Faire connaissance avec l'Eole X100</i> • <i>Ressource - les pièces mécaniques</i> • <i>Document - dossier technique complet consultable à l'écran</i>
n° 5	Ekoizpen kostua	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Problématique - combien coûte la construction d'une Eole X100 ?</i>

(coût de production)

- Ressource - le coût de la recherche et du développement
- Document - catalogue fournisseur chaîne de haubanage (kateak)
- Document - catalogue fournisseur tendeurs de haubanage (tenkagailuak)

Interneten erabilitako **bilaketa motorraren** bidez eta hornitzaileen **katalogoak** erabiliz (*kateak* - *tenkagailuak*), osagai hauei doazkien prezioak aurkitu :

- aluminiozko hodia : diametroa 50 mm, luzera 1,20 m
- 4 zatitan moztu beharko den 2,50 m-ko katea
- abisatzeko 4 kako
- 4 tenkagailu
- medium plaka 1, 500x500, 22 mm lodi
- 4 S kako kromatu




Kakoei eta tenkagailuei buruzko argitzeak :

Izendapenak	S kako kromatua	Abisatzeko kakoa	Tenkagailua (tendeur)
	<p>(crochet en s chromé)</p>	<p>(crochet à visser)</p>	<p>long. fermée = LF - long. ouverte = LO</p>
Irudiak			
Ezaugarriak	<p>B = 25 mm</p> <p>Ø 3 mm</p>	<p>L = 40 mm</p> <p>d = 3 mm</p>	<p>LF = 145 mm</p> <p>LO = 200 mm</p> <p>Ø 6 mm</p>

Kateari buruzko argitzeak :

Altzairuzko kate galbanizatua, 38 katebegi metro kate batean.

Ø 3 mm - P = 26 mm - B = 6 mm



Interneten bidezko informazio bilketa :

Piezak	Hornitzailea + web gunearen helbidea	Salmenta unitatea	Prezio unitarioa	Pieza baten kostua
<i>S kakoa</i>				
<i>Abisatzeko kakoa</i>				
<i>Aluminiozko hodia</i>				
<i>Medium plaka</i>				

Katalogoen bidezko informazio bilketa :

Piezak	Erreferentzia	Salmenta unitatea	Prezio unitarioa	Pieza baten kostua
<i>Katea</i>				
<i>Tenkagailua</i>				

Orain, internet eta katalogoen bidez bildutako informazioak erabiliko dituzu masta baten kostu prezioa kalkulatzeko :

Izendapena	Kop.	Materiala	izariak	Prezio unitarioa	Orotara
<i>Aluminiozko hodia</i>	1				
<i>Katea</i>					
<i>Abisatzeko kakoa</i>					
<i>Tenkagailua</i>					
<i>S kakoa</i>					
<i>Euskarria</i>					
<i>Mastaren kostua</i>					

– Osagai batzuk manatzerakoan, ezingo da behar den kopurua beti hautatu (adibidez, medium plaka). Beste batzuetan, osagaien prezioa apalduz joanen da erosiko den kopuruaren arabera (adibidez, abisatzeko kakoak).

Prototipo (produktuaren lehen alea) bat fabrikatzean edo **serieko ekoizpena** (produktua kopuru handitan ekoiztua) egitean, produktu baten fabrikazio-kostua (osagaiak kontuan hartuz bakarrik) desberdina izanen da : nola desberdinduko dira eta zergatik ?

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

– Produktu bat fabrikatzen denean, **3 kostu edo prezio** mota ezberdin bereiz daitezke :

- A- materialaren prezioa edo material kostua
- B- kostaprezioa
- C- salmenta prezioa


A- MATERIAL KOSTUA

edo fabrikaziorako erabiliak izan diren materialen prezioa (osagaiak, lehengaiak) Kostu honen kalkuluari esker hauxe zehaztuko da :



Produktuaren

.....




Erabil daitezkeen baliabideen araberrako ekoizpen





Emandako kopuru baten ekoizpena burutzeko baliabideak.

Material kostua kalkulatzeko, hauxe ezagutu beharko da :



Osagai guztiak eta haien
(izendegia erabiliz)

	TRANSISTOR 2N-1711	PU 2,30 ^F
	RESISTANCE 220-Ω	0,20 ^F


Osagaien prezio
(katalogoak, fakturak)

B- KOSTAPREZIOA

Kostaprezioa salgai den produktu edo zerbitzu baten kostu osoa izanen da. Fabrikazioa ahalbideratu duen guziaz kontuan hartuko da.



Langileen



.....
prezioa



Estatuari zor
zaizkion
eta



Maileguen



Tresnen mantenua
eta



Produktu berrien
ikerketen eta
garapenaren kostuak



Erabilitako doakion kostua



C- SAL-PREZIOA



.....
(osagaiak, fabrikazioa...)



Promoioari doakion
kostaprezioa
(publizitate, eskaintzak)



=

Enpresaren **kontuen sailak** xahutze eta sartze guziak kudeatzen ditu : hau guzia **buxeta** deituko da.

Lan hori fabrikazioa baino lehen egiten delarik edo aurreikusia delarik, **aurrekontua** deituko da.

Fabrikazioa gauzatu eta, **behin betiko buxeta** zehaztuko da (egiazko kontuak).

Enpresaren kontuak ongi eramanak izanen dira kostuak **menderatuak** baldin badira, hots, aurrekontuaren eta behin betiko buxetaren arteko tartearik mugatuak izanen direlarik.